


# Rio-ko gailurra: zazpi minutuko ametsa

Joxerra Aizpurua Sarasola

**Joan den ekaineko 3 eta 14aren artean Rio de Janeiro-n “Munduko gailurra” izenaz ezagutzen dena egin zen. Oraingoa ez da honelako lehenengo batzar nagusia izan; duela hogeitun urte Stockholm-en egin bait zen lehenena. Orduz geroztik gaurdaino Lurraren osasunak txarrera egin duela esanda denak ados daude, baina egoera aldatuko denik ez dago hain garbi.**



**B**atzarra baino hilabete batzuk lehenago hasi ziren Lur osoko politikari eta erakundeak negoziatzen. Beraz, Rio-ko bilerak egin zirenerako ia dena erabakita zegoen.


Negoiazio hauetan hitz egindako guztia jaso ordez gai nagusien egoera errepasatzea da bidezkoena.

*Ipar eta Hegoaren arteko harremana.* Iparrean Lurreko populazioaren % 18 bizi da, baina kopuru honetako munduan produzitzen den energiaren % 80, altzairuaren % 79, paperaren % 85 eta burdinazkoak ez diren metalen % 86 kontsumitzen du. Kontsumo honen ondorioak maila desberdinetan gauzatzen dira. Alde batetik, hirugarren munduko herrietako lehengaien ustiapena dago eta bestetik ingurugiroko zikinkeria eta poluzioa dira begien bistakoen dauden arazoak.

*Klima-aldaketa.* Herri industrializatuak negutegi-efektuan erantzukizun zuzena dute. Gaur egun dagoen gas-emisioaren maila mantentzen bada, datorren mendean temperatura igo egin daitekeela iragartzen da.

*Ozono-zuloa.* Hain erabilera desberdin bezain ugari dituzten CFC

**Orain arte ozono-zuloa hego hemisferioan detektatu baldin bada ere, azken urteotan ipar hemisferioan ozono-geruzaren ahultzea nabaria izan da.**





substantzien eraginez, ozono-geruza mehetuz joan da azken urteotan. Orain arte ozono-zuloa geografikoki hego hemisferioan egon baldin bada ere, azken urteotan ipar hemisferioko ozono-geruzaren ahuleziaren lehen seinaleak azaldu dira.

**Dibertsitate biologikoa.** Lehengai-premiagatik eta naturako baliabideen ustiapenagatik, milaka espezie desagertzeaz daude. Oro har, espezie-anizkoitasunik handiena hirugarren munduko herrietan dago. Herri hauek garapen bidean jartzeko derrigor ustiatu behar dituzte beren natur baliabideak. Bestalde, manipulazio genetikoaren alorrean gero eta saiakuntza gehiago burutzen ari dira. Saiakuntza hauek sekretupean egiten dira eta giza geneak ere manipulagai dira.

**Desarma eta desmilitarizazioa.** Gerra hotza amaitu denez gero, une aproposa izan daiteke hamar-

kada hau gastu militarrik murrizteko. Aurreztutako diru hau pobrezia arazoak konpontzeko nahikoa izan daiteke. Datuak datu, Lurrean ia 800 milioi pertsona erabat pobre bizi direla aipatzekoa da.

**Hondakinak eta produktu toxikoak.** Gizarte industrializatuen arazorik larrienetakoa produzitutako hondakinak ezabatzea da. Gainera, zenbait hondakin kimiko eta nukle-

ar ezin dira ezabatu eta metatu egin behar izaten dira; produktu toxikoen biltegiak hirugarren munduan daude gero eta gehiago.

**Multinazionalak.** Lurreko ingurugiroan eragiten ari diren aldaketan erantzule multinazionalak dira neurri batean; beren iharduera kontrolatuko duen nazioarteko araurik ez bait dago.

**Basoak.** Tropiko artean dauden basoak Lurreko birrikak dira, baina garapenaren eraginez urtero gero eta baso gehiago botatzen da. Estatu aberatsetan, aldiz, baso ugari gaxorik dago euri azidoaren eraginez.

**Garraioak.** Errepidez edo airez egindako garraioak, energi-kantitate handiak kontsumitzea dakar, eta ondorioz, ingurugiroaren poluzioan kontutan hartu beharreko faktore dira. Bizi-kalitatea hobetu beharrean, neurri batean behintzat txartu egiten dela esan daiteke. Honen adibide, istripuz hildako nahiz zauritutakoak eta zarata-arazoak ditugu.

**Giza bizilekuak.** Garapen bidean dauden estatuetan, batez ere, jendeak lurra utzi egiten ditu hirietara bizitzera joan ahal izateko. Baina, hirietara joandako askoren egoera definitzeko miseria da hitz egokiena, hauentzat eraikitzen diren auzoak azpiegitura eta zerbitzurik gabekoak dira eta.

**Nekazaritza eta elikadura.** Nekazaritzan gero eta gehiago erabiltzen dira ongarriak eta pestizidak. Hauek, nekazaritza produktuak kontsumituta giza gorputzera igarotzen dira.

**Basamortutzea.** Deforestazioa, artzaintza eta zenbait nekazaritza iharduera dira basamortutzearen erantzule.



**Aire-garraioak bizi-kalitatea hobetzen lagundu digu, baina atmosferaren poluzioan gero eta garrantzi handiagoa hartu du.**



# BIODIBERTSITATEA

Biodibertsitatea, orain dela gutxi arte adituek baizik erabiltzen ez zuten terminoa da. Berriki, aldiz, Rioko gailurra dela eta, komunikabideek behin eta berriro erabili duten "biodibertsitateari buruzko akordioa"k guztiontzat ezagun bihurtu du. Ezaguna bai, baina kontzeptuak sakonean zer esan nahi duen jakin gabe. Ez gaitetzen horregatik estutu; ez bait gara ondo menderatzen ez ditugun kontzeptuz inguraturik gabiltzan bakarrak. Rioko gailurrean munduko 152 buruzagik definizio guztiz mugatu eta herisirik ez duen gai baten azpian ezarri dute beren sinadura.

Adituek biodibertsitatea definitzeaz gain, nola neur daitekeen eta, ondorioz, "kontserbatzeko" zer egin beharko litzatekeen jakitera bideratu dituzte beren ahaleginak; biodibertsitatea neurteza espezieen zerrendak egitea baino zerbait gehiago bait da. Espezieei izena eman eta zerrenda formalak egiten diren bitartean, espezie asko desagertzen ari dira eta, beraz, zerrenda formal horiek laguntza mugatua eskaintzen diote kontserbazionistari. Honek behar duena, oso ondo formalizatu gabeko zerrenda izanik ere, informazio taxonomikoaz gain, habitat, banaketa-areak, kontserbazio-egoera eta harreman filoge-

netikoei buruzko datuak dituen zerrenda da.

Biodibertsitatea beraz, epifenomenoa da, hau da, faktore biotiko eta abiotiko desberdinen elkarrekintzaren adierazpena. Beraz, biodibertsitatea taxonomia baino harantzago doa, nahiz eta biologi bildumak eta taxonomian aditu direnak oraindik ere zutabe nagusi izaten jarraitu. Faktoreen aniztasun horren adierazgarri, biodibertsitatea neurteko egun erabiltzen diren planteamendu desberdinak ditugu, hala nola, harreman filogenetikoaren sarea, habitat eta banaketa biogeografikoaren hedadura, espezie adierazle ugaritasuna, elkarrekintza ekologiko jakin batzuen identifikazioa edo planteamendu hauen arteko konbinazioak. Aipatu ditugun adierazle horien tratamenduak, eredu matematiko konplexuak erabiltzea dakartza.

Biodibertsitatearen esanahia gainera, erreferente kulturalaz jantzia agertuko da; bistakoa bait da, kontserbazio-politikak, zientzi oinarri sendoak izanagatik, bete eta sustatu behar dituzten testuinguru kultural desberdinetan "ulergarriak" badira bakarrik izango dutela arrakastarik.

Guzti horiek kontutan hartuta ere, erdigune den gal-



**Oihan tropikala Lurreko birika da. Baina, aldi berean, dibertsitate genetikoaren biltegi ere bai.**

*Itsasoak eta urak.* Itsasoetara hondakinak mugarik gabe eta etengabe isurtzen dira, eta hondakinen artean hondakin erradio-aktiboak dira, batez ere, arriskurik handiena sortzen dutenak. Bestalde, hego hemisferioan 2.000 milioi pertsona baino gehiago bizi da edateko ur onik gabe.

Aipatu gai hauen azpian *garpel-lasterketa* eta estatu pobre eta aberatsen arteko diferentzia daude. Ipar hemisferioko estatu aberatsetan produkzioak ez du mugarik eta horren ondorioz atmosferako poluzioari eta hondakinei ez dakigu zer egin. Aldi berean, kontsumismoak lehengaien ustiapen masiboa

**Sumendieta-  
tik  
atmosferara  
isurtzen diren  
gasek eragina  
dute klima-  
aldaketan,  
baina ez  
gizakiak  
isuritakoek  
adinakoa.**





derari erantzuten saiatu behar dugu orain. Eta hauex da: zer dela eta kontserbatu biodibertsitatea? Zaila da kontserbazioaren aldeko argudioak aurkitzea, biodibertsitatea espezie-zerrenda huts moduan ulertuz gero. Noski, beti ere aurki daitezke espezie jakin batzuen kontserbaziorako argudio moral edo estetikoak, baina hauek kultura bategatik bestera alda daitezke. Bale arrantza dela eta, arrantzale diren eta ez diren herrien artean urtero izaten diren lis-karrak lekuko. Modu berean, herri garatuetako biztanleek habitat batzuen hondamena dela eta sortzen duten zalaparta argudio hutsala da epe laburreko bizitza ekonomikoa habitat horien ustiapenaren menpe duenarentzat.

Elefante afrikarra eta balea urdina desagertzeak tristura sor dezake, baina ez da erraza horietxek salbatzeko bestelako arrazoirik aurkitzea milioka espezieren arteko bi besterik ez badira. Bestalde, espezie bakar batzuk balizko etorkizun batean nekazaritzan edo medikuntzan erabilgarri izan daitezkeelako milioika guzti horiek kontserbatu beharra argudiatzeak ere ez dirudi oso zentzuzkoa denik. Horiek irudi osoaren alderdi batzuk besterik ez dira eta ez dute biodibertsitatea oro har kontserbatzeko adina pisu.

Pisu handiagoko argudioak aurkitzeko, biodibertsitatea espezie-zerrenda baino gehiago, espezien arteko elkarrekintzen batura moduan ulertu behar da. Biodibertsitateak beraz, sistemari egiten dio erreferentzia eta ez osagaiari, nahiz eta sistemaren iraupena eta malgutasuna osagaien babes eta iraupenak bakarrik ziurtatu ahal izan. Bide batez, etorkizuneko ikerketa eta ustiapen ekonomikoa ere barne hartuta eta ziurtatuta geratzen dira horrela.

Azken urratsa emanez, biodibertsitatea gizarte-ongizatearekin lotuko dugu. Eta nola liteke hori? Benetan, gutxi izango lukete bere bizikiltatean honako edo halako espezie desagertzeak ekar diezaiokkeen kaltea zehazteko eta, are gutxiago, koantifikatzeko ausardia. Baina, bestalde, Lurrean bizi eta arnasteko aukera ematen diguten baldintza fisikoak biodibertsitate horren ondorio zuzen dira. Milioika urtetako elkarrekintzen fruitu dira atmosfera arnasgarria, lurzorua emankorrak eta edateko ura (eta gugeu ere material hauetara egokituta gaude, eta ez izan zitezkeen beste batzuetara).

Adituak bide hauetan barrera dabilta biodibertsitatea zer den eta kontserbatzeak zer eragin duen argitzeko. Sinatu dutenek zein esanahiren azpian egin ote dute errubrika!

ekarri du, ondorioz hirugarren munduko baliabideek astindu ederra jasan dutelarik.

Rio-ko gailurraren helburua ez zen arazo guzti hauek konponbidean jartzea, baizik eta askoz ere umilagoa, hots, "gizarteko sektore desberdinek, arazoaren inguruan kontzientzia hartzea". Ez zen beraz, akordio ikusgarriarik itxaron. Eta horrelaxe gertatu da. Ikus dezagun, bada, Rio-ko gailurraren ondoren gairik garrantzitsuenak nola geratu diren.

**Biodibertsitatea.** Munduko 150 estatu, sinatutako akordioaren arabera, biodibertsitatea zaintzeko behar diren neurriak hartzearen

alde azaltzen diren bitartean, EEBBek ez zuten akordioa sinatu nahi izan. EEBBek duten pisua kontutan hartuz, akordioa hankamotz geratu dela esan daiteke.

**Klima-aldaketa.** CO<sub>2</sub>aren emisioa 2000. urtean 1990. urtean izandakoaren berdina izatea nahi zen, baina hemen ere EEBBen iritzia kontutan hartu behar izan da eta 2000. urteko muga hori "sine die" luzatu da.

**21 agenda.** Agenda hau intentzio onez beteriko gai-zerrenda da. Datorren mendean zehar garatuko da eta horretarako diru-kantitate batzuk esleituko dira. Estatu aberatsek gaur egun ingurugiroa zain-

tzeko Barne-produktu gordinaren % 0,35 gastatzen badute, datorren mendean kantitate hau bikoizteko erabakia hartu dute.

**Basoak.** Betidanik zur-merkataritza zuten estatuen eskubideak aitzatetsi eta arautu egin dira.

Ikusten denez, akordioak baino gehiago intentzio onez egindako adierazpenak izan dira.

Munduko mandatarietako bakoitzak zazpi minutu izan zuen beste ordezkartzen aurrean hitz egiteko. Zazpi minutuz ametsetan aritu ziren. Ametsetik errealitatera igarotzea ez dakigu posible izango den, baina guk amesten segituko dugu.